


Bizkaitarrei Bizkaieraz

**ZAR**

372n. zenbakia • 2011 Garagarrilla



[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)  
[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)

# Euskalerria edo Euskadi

“Berezko sorterri  
edo aberria da” (V)



**Ardurea  
zer dan.**



**Palankarien  
kirola.**

# Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

## 2011-2012 IKASTURTEA

### BIZKAIERA IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen eta eguasten  
edo astearte eta eguenetan  
Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan  
Ordaña: 140 €  
Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
urrutizkiña 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 10an

### CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes y miércoles  
o martes y jueves  
Horas: Mañana, tarde y noche  
Curso completo: 140 €  
Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
Teléfono 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Comienzo: 10 de octubre

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK  
BILBAO BIZKAIA KUTXA  
2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera erobatan lagundu eigu! Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 25 €.**  
Ez dozu ezer be idatzi bear.  
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.  
Eskerrik asko!

## Euskerazaleak


ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Salla  
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

[www.flashcomposition.com](http://www.flashcomposition.com)




# GIZARTEA, ERRUDUN EGITEN ZAITUT

- Egindakoak, egiten jarraitzen dituzunak eta egin gabe utzitakoengatik.
- Naiz eta guztientzat ogia eta ura baden, egunero ainbeste aur goserik iltzen direlako, errudun egiten zaitut.
- Giza lagunak maite dituzun arren, naikeria zekenagatik elkar iltzen dutelako, errudun egiten zaitut.
- Justizia oztopatu eta lardaskeri osoa erabiltzeagatik, errudun egiten zaitut.
- Ez etxebizitza, ez janari, ez lo egiteko estalperik, edo atsedena artzeko lekurik ez dutenengatik, errudun egiten zaitut.
- Samurtasuna ezineko egiteagatik, errudun egiten zaitut.
- Aaltsu direla jabetuz barkamena eskatzen ez dutenen arrokeria babesteagatik, errudun egiten zaitut.
- Gizateriari egindako kalteagatik, errudun egiten zaitut.
- Aurrak irentsiak izango direla?
- Mesedez! Egin diezaiegun aurre gizarte onen "gaitzei", batez ere arrapakera, nagikeria, zurikeria, injustizia, prostituzioa eta ustelkeriari.
- (Urteko argazki onena izendatua) "Soilik beartsuak (baina espirituz aberats) dira ain eskuzabal. Bai penagarri gizakiak ez izatea beti gisa orretakoak!
- Gizartea ondamendi naturalez zauritu da, baina ondamendiak, ein andi batean, gizakien arrapakera eta axolagabekeriek eragiten dute, zentzurik gabeko gerrak ama lurra larritu eta deseginez. Gerra oriek soilik bakan batzuen boterea eta andinaiak sortu dituzte.
- Idazki onek lurbirari bira osoa eman diezaiola, eta ulertu nai ez dutenak ere ukituak gera daitezela.
- Gure planetan naturarekiko babesa eta maitasuna edozein arrapakera eta naikerien gainetik izatea eskatzen dugu.
- Idazki au izkuntza guztietara itzuli dezatela, denek -arraza, azal-kolorea, naziotasuna edo erlijio bereizketarik gabe-ama lurra eta alaber mundu osorako bakea eta justiziaren aldeko begirunezko garrasi andian parte artu aal izateko.
- Eskerrak denoi gure deiadar urratua edatzeagatik. ¡EZ amorerik eman!
- Gizartean denak zoriontsu izan daitezela!
- PAKEA - PAZ - PEACE - PACE -SAHANTI -FRIEDEN -LA PAIX -KAPAYAPAAN - MIIP -VREDE
- ¡Gaurko gizartea, errudun egiten zaitugu!

**JUSTIZIA! eta BAKEA!**

**Patxi Otamendi'k**



## "Euskaldun" ausnartzen

Guk, txiki izatearen miña, geurekaz bearko  
dogu,

Gitxi gara euskaldunok, gitxiago gara  
euskeraz dakigunok.

Euskaldunak, munduko izkuntzarik  
indartsuenetakoakaz

inguratuta gagoz.

Euskal kulturaren esparrua, oso laburra  
da, eta euskal iztunen

kopurua, oso murrizta.

Gu gara, zoritxarrez edo zorionez, bizi egin  
gure dogun erri bat,

eta geure erara bizi, eta ori gizarte arazoa  
da, arazo soziala.


Iru izkuntzetan, euskera lenengo.

Bearezkoak edo komenigarriak diran  
einean. Inoz ez, kulturari kalte egiten, edo  
ta kulturaren ardurak, bigarren mallara  
pasarazten ba dabez.

Legeak galazten ez dauena, gizabideak  
galazo daike.

(Esaera au, Senecarena da).

Agustin Arrien



## Lau lagun.

Aizea, Ura, Sua ta Izen Ona ,banandu bear eben egun baten alkarri agurka asteko egozala, asi ziran asmetan zelan barrero alkar bat egin al izango eben.

\*Aizeak esan eutsen beste irurei: Solo baten galburuak makurtuten asitakoan, ekatxa murrusaka somatu dagizuenean,esan zeinkie: - "An dago Aizea".



\*Urak esan eban: Ugarasi edo igelen kirri-karrea entzun edo il ta ira ta ezpata bedarrik ikusi daizuezenean, esan zeinkie:- "An dago Ura"

\*Suak esan eban:" Ke ariñak iragarriko dautzue ni zein tokietan nagoan".

\*Izen Ona, besteak adi egon arren, ixilik egoan.

\*Eta ik ez diñok ezer ?-itaundu eutsoen lagunak. ¿Zelan aurkituko zaitugu?

\* Ta Izen Onak erantzun eban:-" Ni bein galdu nabena, ez nau iñoz aurkituko".



(Azkuen ipuñia)  
Agustin ARRIEN



# Eskoziar bat Bizkaian



**I**ain eskoziarra Euskale-  
rri-ratu egin jaku, ikasi  
dauan euskerea obaturaren;  
ogetabost edo urteko dogu;  
asikerako egunak Bilbao uri-  
buruan igaro dauz, baiña an ez  
eban euskeraz berba egiteko  
modurik izan.

Bizkai-ko erri txikerrago  
batera joan da, ango sendi  
euskaldun bategaz euskerea  
obatu daian.

Gurasoak, Yon (Iain-en  
kidakoa) ta Maitane ala-  
batxua bizi dira etxean;  
Yon-egaz batez be ibiltan  
da Iain eskoziarra,  
ganerakoakaz be alkar  
artu ta osteratxuak egiten  
dauzan arren.

Ara, Yon, euskerea Eskozia-ko  
gaelikoak baiña askoz be erabilia-  
goa bada be, Bilbao-n ez neban  
txintik entzun euskeraz; gurean,  
ipar-sartaldara ta ugarte-  
etara mugatuta dogu gure  
jatorrizko berbeta, beraz,  
uriburuan be ez dabe gaeli-  
korik entzuten; Glasgow-en  
iztun gitxi batzuk baiña ez  
dira bizi, baita Kanada-ko  
Nova Scotia eskualdean be  
-iñotsan Iain-ek Yon-eri.

Bai, neuk be entzun dot  
gure euskerea Eskozia  
ta Frantzia-ko Bre-  
taña-n baiña geiago  
entzuten dala erantzun  
Yon-ek; ikusten doda-  
nez, beste zenbait berbeta

gure euskerea baiña okerragoko egoeran  
dagoz.

Gales-en emen adiña berba egiten dabe;  
errialde orrek burujabetza osoa lortu ez  
dauan arren, guztiz burujabe dan Irlanda-  
ko Errepublikan baiña kementsuago eusten  
dautsoe gaelikoari.

Alandabe, bada kezkatzen naun zerbait.

Zek kezkatzen zaitu ba, Iain?

Emen euskeraz bai berba egiten da, baiña  
begitantzen jat zaarrak txukunago egiten  
dabela berba gazteak baiña, izan be, erderak  
jan dautsoe barrera ainbat gazteri, ta orreik  
gazteok erdal esapide ta esakun eurrez  
sartuten dabez; sarri esaldia euskeraz asi  
ta a erderaz amaituten dabe.

Bai, arrazoi dozu - erantzun dautso otz eta  
legor Yon-ek. Egia esateko, neu be kezka-  
tuta nago; orain artean, edesti guztian zear,  
Bigarren Errepublikaren denporan eta orain-  
txe izan da euskerea aginteko edo koofizial;  
orain arte bizirik eldu jaku euskerea; larri-  
larri bada be, baiña orain, iñoz baiña zindo ta  
errimeago loratu eitekeala-ta, makal jabilku  
ta azken atsetan dagoala deritxat...

Jende askotxok diñost arazo ori baltzegi  
ikusten dodala-ta, ezezkorregia nazala.

Bidaso-z aruntzeko Xalbador-ek be erabili  
eban gai itun eta goibel a...

Guztiz tamalgarria dozu ori! - dirautso  
Iain-ek, gaelikoz Jon esan gura dauan  
izenekoak;

Arana tar Sabiñ-eri irakurri neutson eus-  
kaldunak euren berbeta galdu ezkeru, arein  
ondorengoak aurreko asabak madarikatuko  
ebezala. Bat zatoz orregaz, ala? Bestalde,  
ortografia kontuai jagokenez, zuen leengo  
idazkera orain ofizialdu dabena jatorragoa

ta erabilteko errezagoa zan, berbak esaten eta ebakiten direan modutik urbillago egozalako. Guk Eskozia-n be, badogu or Irlanda-tik ikastekorik, an idaztankera erreztu egin dabelako, ta esaten ez ebezan izki ta izki-moltso batzuk kendu egin dabezalako.

Bai, alaxe dozu; zuk ondo be ondo ikasi dozu euskera, euzkotar askok baiño obeto. Badozu zeure eritxia emoteko eskubidea, emengo barri xee-xee badaukozu-ta; irakasbide ederra emongo zeunskio emengo jende askori.

Bai, baiña esaten dautsudan lez, Eskozia-ko gaelikoaren egoerea euskerearena baizen ona izatea gura neuke; izan be, egoera ona dozue gaelikoagaz alderatu ezkeru...

Leitekeana da, Iain, baiña euskereak be gorriak ikusi bearko dauz bizirik iraun gura badau bantzangotasun edo globalizaziño ontan; ganera, badogu beste arazo larri bat be: dakizunez, euskeraz dakian jente askotxok ez dau euskeraz berbarik egiten, ez ta alantxe egiteko egokierera daukenean be; beraz, erabilten ez daben berbeta xaarra erdoildu egiten jake, kaian inok erabilli barik itxiten dabezan itxasontziak legetxe, ta azkenean, itz bi euskeraz egiteak lan andiak emoten dautsezala-ta, erderara jotzen dabe beti. Bestalde, orain kanpotar eurrez etortzen diranez, berbeta bi dagozala entzungo dabe, baiña kalean geienetan erderaz, euskeraz dakien artean be entzuten badabe, egoera ortaz jabetuko

dira ta uste izango dabe euskerea ikasteak ez dauala bererik edo merezi; dakienak be erabilten ez badabe, zertako ikasiko dogu guk? - itaungo dautsoe euren buruari.


Ortan txanpa jo bearko dogu sendo, ostantzean, euskerearenak egin dau.

Niri dagokidanez - dirautso Iain-ek orain - ez dot jente askok lez ekonomi interesik euskerea dala; ez nabil euskerea ikasten lan jakin bat topau daidan, ez daukadalako argi emen biziko nazan; itzuliko naiz bai, Jaungoikoa lagun, euskera gero ta geiago ikastera; jente askok egingo baleu gauza bera gaelikoagaz eta euskereagaz, zeero obafuko litzakigu egoerea. Euskerea azkortu ta zuzpeltu egingo litzake. Ekonomi interesetik at, euskerak nire jakintzan geitzen dauana artuten dot aintzat, Europa-ko berbeta zaarrena, edo zaarrenetakoa beintzat da-ta; antziñan gure asabak zelan bizi ziran ulertuten lagunduten dauku, ta beste mundu-ikuskerak bitxia damosku. Zuk be gaelikoa ikasiko ba-zendu, poz bera eukiko zeunkeala deritxat.


Nok daki, egunen batean baleiteke...

Eskozia-n euskera ikasle-taldetxu bat antolatu gura dot, Jaunkoia lagun; gaelikoa ta euskerea landuko doguz. Aor Iain, erri ta berbeta txikerren maitalea, amets goxotan...

Asier Etxaburua  
Ipuin Sariketa Igo. Saria 2010



# Palankarien kirola.



*Andres Uriguen, Aulestiarra*

Palankarien kirola naiko itxia dago.

Meatzetan sortua izana bear dau euskal kirol au. Diñoenez arri zulatzalleen arteko apustueta asi ziran palanka nork baño nork urrinago jaurtitzeko saioak.

Palanka jaurtiketak garai ospetsuak izan zituan. Kirolari batzuk, tartean Felix Erauskin aiztu eziña, sekulako bultzada emon eutsoen.

Boni Allende Enkarterrietako kirolariak garai ospetsuak bizi izan ebazan, baiña gerora kirol onek bera eta anzturara egin dau. Palanka kirola xabalinaren teknikara egokitu izan balitz, xabalina beraren marka olinpikoak baño metro batzuk geiago lor eikezan.

Boniri aretoko pistako pisu jaurtiketan txapelduna izan ondoren sortu iakon palankarako zaletasuna.

Etxekoen artean aita eta aitona palankariak izanak ziran. Aitonaren garaiko erak aldatu dira: palanka bera eta jaurtitzeko modua.

Leen burdiñezko palanka lodiak erabiltzen zituzten, 14 kilo eta erdikoak. Orain altzairuzkoak dira, luze eta mearragoak, 4 kilo ingurukoak.

Jaurtitzeko modu bi erabiltzen ziran: ankapea, palanka anka tartetik jaurtiz; eta bularrekoa, oiñak lurrean mugitu barik zutik jaurtitzen zana.

Gauregun, bigarren modua erabiltzen da, baiña norbera jiratu eta abiada lortuz. Felix Erauskin orretaz baliatzen zan.

Teknika ori ez da Felixek sortua, leendik Tolosako Iguaran-darrak erabiltzen eben eta. Erauskin jaurtitzale gisa diskoboloa bazen be, xabalinaren teknika palankara egokitu eban urrinago jaurtitzea lortuz, naiz eta ez dan erraza jaurtiketarako kokaera ona lortzea.

Miguel de la Cuadra Salcedok bein Parisen palankaren teknikaz baliatuz lortutako errekorra balio-gabetu egin eutsoen. Epailleek ez eben egindako marka onartu, orrelango jaurtiketa arauz kanpokoa zala argudiatuz.

Beste kiroletan aldaerak onartuak izan dira, ala nola salto egitea Fosbury modua, edo disko eta pisu jaurtiketetan.

Palankarien jaurtiketa modua, ordea, ez da onartua izan. 1962 urterarte kirol au atletismo federazioan txertatua egoan, baiña urrengo urtean agintariek palankari kirol mailla ukatu eutsoen.

Euskadi mallan palanka leiaketak izan ziran, babesik bage eta eskolako aurren kirola legez. Alan da be, Anoetan izandako azken jokoetan oiko jaurtiketa gisa onartu zan. Edozein jaurtitzalek bira eginda jaurtiz xabalinako txapelduna gaillenduko leuke metro geiagotara jaurtiz.


**AGUSTIN ARRIEN.**  
(*Patxi Otamendik euskeratua*)



# Ardurea zer dan.

Euskalerrian etxeko andrea izan da beti familiaren ardurea artu dauena, batez be gizona mendian egoten zalako bearran.

Gure erriko baserri polit baten andra-gizonak bizi ziran, euren seme Patxiagaz. Gabonak eltzeaz zirala-eta, amak esan eutsan Patxi semeari: -Patxi,errotara joan bear dozu. Kortako atean dago astoa, lepo ganean zorroa dauela. Kontuz ibili, ez joan arinegi, zorroa ondo estututa dagoanarren jausi leitekela. Bada ezpadan zakutoari eutsi esku bategaz, jausi ez daiten.



-Ama! Eta zorroa jausten bada, nork lagunduko deust alztetan?

-Ardureak! erantzun eutsan amak.

Patxi astoa artu eta badao errotara bidean, baña lagun bategaz topo egin eta olgetan asi zan. Astoa,bien bitartean, bide basterreko bedarrak jaten egoan. Urrinean, beste asto baten arrantza entzun eban, eta astoa galapan asi zan.

Patxiri konturatu barik joan jakon denporea. Konturatu zanean, astoa ez egoan an, eta mutiko biek astoa billatzen asi ziran.

Ondoko basetxe baten egoan astoa beste asto bategaz. Illuntzerako ez zan asko falta eta eguzkia berantza etorren. Astoa artu eta badao errotarantza arin-arin. Zorroa kilin-kalan asi zan astoa ganean,eta alango baten lurrera jausi jakon gari-zorroa.

Berak bakarrik alztetako naiko astuna zan. Orduan amak esandakoagaz konturatu zan: ardureak lagunduko eutsala alztetan. Arri baten ganean jarri, eta antxe geratu zan ardurea noz etorriko etxoten, baña ardurea ez zan agertu.

Ordua aurrera joian eta larrituten asi zan, laguntzarik ez etorrela ikusita, bera asi zan zorroari oratuten eta bera jarrita ego zan arri ganera igoten. Olan, arri batetik beste andiago batera eta azkenenan asto ganera. Soka-lokarriagaz ondo estutu eta badao errotara.

-Patxi au da tertzioa errotara etorteko! dino errotariak.

-Zorroa jausi egin da asto ganetik eta ardureari etxoten egon naz, baña ez da etorri. Orregaitik nator berandu. Errotaria barreka asi zan ezebe esan barik.

Gari-zorroa artu,eta asto ganean ipini eutsan errotariak. Ondo estutu ta onakoa esan eutsan:

-Kontuz bidean barriro be jausi ez daiten. Artez-arte joan zaitetz etxera.

Etxera eldu zanean: -Guzurti bat zara! esan eutsan Patxi amari.

-Ni guzurtia, zergaitik baña? esan eutsan amak.

Patxi gertatutakoa kontau eban: Ardureari etxoten egon naz, baña ez da etorri.


-Zelan alztetu dozu zorroa asto ganera?

-Arri baten ganean ezarrita egon naz eta ikusirik ardurea ez etorrela, zorroa artu dot eta lenago ezarrita egon nazan arriaren ganera alztetu dot. Andik beste andiago baten ganera eta olan asto ganera alztetu arte. Soka lokarriagaz ondo esturu dot eta errotara berandu,baña eldu egin naz.

-Ikusten dozu? Ardurea izan da lagundu deustuna, esan eutsan amak.

-Ori da ardurea? Ba ez da lagun txarra. Arduratuko naz aurrerantzean ardureagaz lagun ona izaten.

Alan ba zan edo ez bazan, sartu daitela kalabazan.



## Bidelaritzan (I)

-1-

Sasoiko gaztea naz,  
gazte euskalduna,  
ezetu nai dot mundua,  
nire Ama aurrena.  
Artu dot txapela ta  
zer jan ta edana,  
eskuetan makilla,  
baitan gogo ona,  
beti be egiteko  
bidelari lana.

-2-

Bidelari lez noa  
mendi aldazgoran,  
ta loratxu bat dakust  
bide bastarrean.  
Agur, loratxu maite,  
dirautzut benetan,  
indarbarri nauzula,  
martxa nekosoan.  
Bejon deizula, lora!  
Seji pozten, olan!

-3-

Bidelari lez noa  
goruntz, mendi maldan,  
ta iturritxu bat dakust  
aurreko txokoan.  
Esker milla damotzut,  
diñotzut egitan,  
asetu nauzulako  
egarri bizian.  
Bejondeizula, iturri!  
Ase, egarritan!

-4-

Bidelari noala,  
zerbait naz bildurtu,  
ustegabeen troka  
dodalako aurkitu.  
Zorionez zubi bat  
dabe antolatu,  
eta bere gañetik,  
pozik naz pasatu.  
Bejondeizula, zubi!  
Laguntzen jarraitu!

-5-

Bidelari lez nabil  
bideak egiten,  
eguzkia galdatan,  
gorputza kiskaltzen.  
Laster, baña, ikusten dot  
pagadi eder baten,  
kerispea dagola  
emoteko atsedean.  
Bejondeizula, pago!  
Seji atsegintzen!


-6-

Bidelari noa ta  
ibilli ta ibilliaz,  
oñak ta zango biak,  
neketu egin jotaz.  
Alan ta beingo baten  
gozatu egin naz  
errekatxu bateko  
uretan bustiaz.  
Bejondeizula, erreka!  
Ekin gozatuaz!

-7-

Bidelari bidean,  
leku izkutuan,  
urresiñula dago  
mirariz kantetan.  
Soñu ederrik bada  
auxe da benetan,  
unkitzen gaituana  
barru ta kanpoan.  
Bejondeizula, txori!  
EKizu kantetan!

olerkia



# Galtzear maitasuna

-1-

Loratu bat zuretzat  
ebagiz batera,  
loratu polit ori  
galtzen asi zara.  
Zimeltzen asten jatzu,  
ori kolorea,  
aziak be usteltzen,  
ostoak lurrera,  
ta udabarriak dakar  
neguko itxura.

-2-

Txoritxu bat eskuan  
ba dozu lotuten,  
asi zara, beingoan,  
txoria galduten:  
basoan kanturikan  
ez dozu entzuten,  
txorikumetxurik be  
ez dozu ikusten,  
alaitasuna barik,  
dana da ituntzen.

-3-

Askatasun bitxia,  
jaurtitzen ba dozu,  
gauzarik ederrena  
galdutzat emoizu.  
Jabetasuna bage  
ezin aukeratu,  
edozeñek menpean  
zapalduko zaitu,  
ta zure nortasuna  
ezeztuko jatzu.

-4-

Aitak bere semea,  
urruntzen daunean,  
murgildu bear leuke  
bizitza barruan.  
Giora berak gaindituz  
egunerokoa,  
ta zuzenez jokatuz  
irmotasunean,  
barrizuta letorke,  
etxera itzultzean.

-5-

Oroitu eizu beti  
egi au sakona:  
neurtu eziñeko bat  
dala askatasuna.  
Ta lasai ta patxaran,  
onartzen dauana,  
beragaz eukiko dau,  
beti poztasuna,  
izanaz beretzako  
sari ederrena.

-6-

Ondoan euki eizuz,  
leial dozuzanak,  
iñoren beldur barik,  
maite zaituenak.  
Daukien izen ona,  
ospe ta txaloak,  
ezeretzat artuaz  
euren arazoak,  
orreik dira zuretzat  
onetan onenak.

-7-


Mundu osoan dagon  
aberastasuna,  
izan daike danontzat  
zoriontasuna.  
Baña gitxi batzuen  
esku da geiena,  
niretzat niretzako,  
niretzat zuena,  
olan bizi diranak  
dakarre ondarena.

-8-

Maite ditut larrosak,  
maite txoritxuak,  
egunez eguzkia  
ta gaubez izarrak.  
Maite ditut margoak,  
maite abestiak,  
errekatzu baztarrak,  
pago ta aretxak.  
¡Sukartu nagiala  
maitasun sugarrak!.

Munetxek  
Bil.10

# olerkia



# Euskalerrria edo Euskadi

## “Berezko sorterri edo aberria da” (V)

### MAURITARREN SARRERA EUROPAKO SARTALDE ONETAN.

Mauritarrak 711ko urtean Europara sartu ziranetik, godoak aienatu ziran len aipatu dogun lez, eta euren asmakizuna garaitzeko, antolamenduzko guda indar aundiegaz asi ziran, baiña ikusi dogun lez, Poitiersera elduta Marteltar Karlosek geratu ebazan.

Ortik gora ezin eben igon, eta XIIn gizaldian berakadan asita, 1.492an Granada-n egindako menperatasunezko itunerarte iraun eben, 781eko urtetan, gure artean egonda.

Baiña, Munduari emon eutsoen jakintzazko eragi-pena, ia gure denboretaraiño eldu da.

### EUSKALERRIKO LURRALDEAN LENENGO ERREGE TA JAUNAK.

Mauritarrak agertuta, godoak aienatu ziran erdi ugarte onetan, Frantziako lurraldeetan izan ezik, eta menpeko asmakizunetan irauntasunezko eten aldi bat agertuta, iparraldean Frankoagaz eta egoaldean Leon-Asturiaseko erregeakaz sortu jakuzan eztabaidakaz, gure arbasoak bereala konturatu ziran jaurkintzazko antolamendu bat bear ebela euskal lurak beren senditasunezko izatasunean babesteko, eta prestuten asi ziran euren batzar nagusien antola bidetik.

### AKITANIA.

Erromatarrak euren politikaren antolamendurako, Frantziako Galia esaten eutsenari, lau lurraldeetan banandu eben. Akitania, banaketa orren zati bat da.

Bere lurraldea, Loira ibaitik, Zebenes mendi kateak, Auñamendiak eta Gaskuña edo Bizkaiko itsas-golkoagaitik mugatuta dagoena da.

Bisigodoak, 418ko urte ingurutik egon ziran zabaldua Akitaniako lurraldeetan<sup>(1)</sup> alkar zaletasun antzeko baten.

476an erromatar kaizar sakratua menderatu eben godoak, naita Dalmazian<sup>(2)</sup> Nepotetar Juliogaz 480ko urterarte iraun, eta 477an euren kaizertza zabaldu naian, erdi ugarte onetara etorri ziran.

486an frankoak Klodobeo-ren<sup>(3)</sup> agindutara, Siagrio Godo-aren jabetasunean egon ziran Loira ibaitik gorako galiaren iparraldeko lurraldeak menderatu ebazan, eta Siagrio bere burua babestu naian Tolosara joanda, IIIn Alarikok bidean arrapatuta Klodobeori eskuratu eutson, eta onek il ondoren, Frantziako lurralde guztian bisigodoak eta frankoak auzo lez geratu ziran jabe.

507an Klodobeok, Gundebaldo borgoñtarragaz alkartuta, Boille, Poitiers ondoan egindako borroka nagusian irabazi eutson IIIn Alarikori, berau bertan

(1) *Nebenpopulania ta Akitania sekundan.* (2) *Dalmazia = Yugoslavia.* (3) *Klodobeo 481-511 urte bitartean frankoen erregea izan zana, bere emazte Klotildek, katolikotasunera aldatu ebana.*

ilda, eta 508an Teodoriko ostrogodoa, Gundebaldori Narbonan egindako borroka irabazita, frankoak eta ostrogodoak geratu ziran garaille.

Euskaldunak borroka orren bidez, Akitania<sup>(1)</sup> ta Nobenpopulanian auñamendietaraiñoiko lurraldearen jabetasuna galdu eben, frankoak eta gero ostrogodoagaitik menperatuta geratu zanean.

Ostrogodoak erromatarren antzera, euren norkerizko guda indarrarekin, lurralde guztietatik ibili ziran berezko erritarren legeak kontuan artu gabe, erritarrak euren borroketan peoi lez ibilteko ta zergak ordaintzeko baiño besterik ez ebalako gura.

574ko urtetik asita, Nafarroa, Aragoi eta Kataluñako euskaldunak lenengo, eta Bizkaitar, Arabar eta Kiputzak gero, Auñamendi kateetatik zabalduz zirikitu ta oztu egiten eutsen godoai, euren gorde tokietara ostera joanda.

Eta 582an Bisigodoak erdi ugarte onen euskal lur batzuk menperatzen asi ziranean, iparraldeko euskaldun asko alkartu jakiezan godoari aurre egiteko.

Astrobaldo dukea ibili zan euskaldunak menperatunai, eta ezifnean, 587ren ostetik erabagi batera eldu ziran, Euskal bizitza aurrera bakez eroateko: "euskaldunek zergak ordainduko ebezala, batera baiña, bizi ziran lurraldeetan, euskal-legeekaz jaurrituko ebela".

602an Austriako II In Teudoberto eta borgoñako II In Teodorikok, euskaldunaren aurka joan ziran, eta beartu ebazan eurak agindutako kondea on artu egien.

## BASKONIAKO DUKAT-ERRIA.

Or agertuko zan lenengoz bere gorteagaz euskal askatasunaren Bazkoniako-Dukerria, merobinjoren erregetzatik aginduta.

Genial galo-erromatarra izan zan lenengo dukea 602-626ko urtetan, eta aukera barri bat agertu jakien iparraldeko euskaldunai, euskal nortasunaren izaerazko oituran bizitzeko.

626an Genial kondea il zanean, euskaldunak matxinatu ziran bere ondorengo Aighina zanaren aurka.

629an baiña, I Dagoberto agertu zanean, frankoaren agintaritza sendotu zan lurralde guztian.

635ean frankotarren agintaritzari euskaldunak aurka egin eutsoen denboraldi baten, eta 638an I Dagoberto il zanean, ondorengo ziran errege fardelakaz, frankotarrak ezereztu jakien Augustoren mugatara itzultzea, Eurikoren erreifua ostera osotzeko.

Euskal erritarrak feudoan eta geien gotzaintegian finkatu ziran bitartean, Baskoniako dukerria indartzen joan zan, eta denbora gitxian euskal-dukerriko agintaritzaren erabagiak, orduko frankotarren errege alperraren gaiñetik jaurkitzen ebezan.



(1) Akitaniako Dukerria, kontuan euki bear da Ebroraiño zala.



Eginkizun oneik, Akitaniako andimandien eta eskal erritarren artean, ezin obetoko ulermenean ezarrita egon ziran, eta euskaldunentzak laster emongo ebazan emaitza onak.

Ebrinok, Frankoaren erregetzazko etxe-zaiñak eta gorteko denbora onen larri aldian, Felixeri emon eutsozan Euskalerriko Uri guztien nausitasuna Auñamendirarte.

Felix-ek baiña, frankotarren alde jokatu barik, Baskoniako Dukerriaren alde jokatu eban, euskaldunen politika indartzeko.

Eta gero ikusiko dogun lez, Felix-en ondorengoa Lupus<sup>(1)</sup> izango zanak aurreratuko ebazan eginkizun oneik, frankotarren aurka zuzen borrokatu ta

Wanba bisigodo erregearen aurka, Septimaniako<sup>(2)</sup> iraultzari lagunduta.

Gauzak olan zirala, 660-670eko urte artean Toulouseko erreñu zarra bizkortzen asi zan, eta Akitaniako Felix dukearen ondorengoa I Otsoa edo Lupus<sup>(3)</sup> izango zan Baskonia Dukerriko jaurkitzaren buru 670-710eko urte bitartean.

Ondoren eta 710-735eko urte bitartean, Eudon Aundia izango zan Baskoniako Dukerriaren agintaria.

711ko urtean, Muzaren mauritarrak Tarik-en agintutara erdi-ugarte onetan Kadiz-etik sartuta, Rodrigo bisigodoaren gudaloztea ezereztu eban, eta 714ko urtean Saldubara<sup>(4)</sup> eldu ta menperatu eban.

(1) Lupus = Otsoa. (2) Septimaniako lurraldea = Erromatarrak Rodano ibaia, Auñamendiak eta itsasoaren bitartean dagoan lurraldeari esaten eutsen. Eta Frankoak, Garona ta Rodano ibai artean eta Auñamendi ta Zebenez mendikateen arteko lurraldeari Galia gotikaren izenagaz esaten eutsena  
(3) Lupus edo Otso oneik, Aragoiko Iaka edo Jakakoak ziran. (4) Salduba edo Zalduba = antiguo nombre vasco de Zaragoza.

Salduba ta Logroño arteko eremu zabal baten bu-  
ruzagi nagusia izan zan Kasio, eta bere ondorengo  
lez, ibar orreitan kokatuta geratu ziran kasiotarrak.

Kasio kondea, bisigodotarren errege leiñukoa zan,  
eta 714an bere lurraldearen aginteari eustearren  
musulman biurtuta, kalifaren serbitzura aldatu zan,  
ortik artuko eben Banu-Kasiren<sup>(5)</sup> izena, eta ga-  
rrantzi aundikoa izango zan nafartarren erregetza  
sortzeko.

718an Akitaniako lurraldea, Eudon Aundiaren  
jabetasunean egonda, euskal eragipena iparraldetik  
Loira ibairaiño, Ego-aldetik Ebroraiño, eta men-  
debaleko kantabriatik, Auñamendiren eki-aldeko  
Jirona-Lleidako Aran ibarrerarte laterrituta geratu  
zan<sup>(6)</sup>.

Orduko denboretan Eudon-en printze-erri au,  
Galia guztiko eredu lez geratu zan, Austrasia<sup>(7)</sup> ta  
Neustria-ren<sup>(8)</sup> arteko borrokatan, antolatzaile edo  
artekariaren<sup>(9)</sup> lanak al egiteko bakarria izan zalako.

Eudon-i askatasunaren eragipenezko ekintza orreik,  
eskerron<sup>(10)</sup>, onspeneko<sup>(11)</sup>, ta erregearen<sup>(12)</sup> izena  
balio eutsozan.

671-tik-781-era Baskonia-ko Dukerria, franko-en  
agintzatik aske bizi zan, eta bera izan zan lenengoz,  
euskaldun guztiak politikaren jabetasunean alkartu  
ebazanak.

Euskaltasuna eta Euskerea sendotu ziran. Batera  
baiña, beste zoritxarreko gauza sortu jakon gure  
izkuntzari.

Euskerea sendotu bazan gitxi erromatartuta egon  
ziran euskaldunen artean, geien erromartuta egon  
ziranen artean "Gaskon" latin-kume agertu zan,  
ortik aurrera gaskoien erritarrak agertuz.


Gero, gizaldiak aurrera doiazela Gaskoi izkuntza  
zabaltzen joan zan, Euskerea neurri bardiñean gi-  
txituz. Eta XII-XIIIin gizalditik aurrera Aran-eko  
ibarreraiño.

Dana dala, Baskonia-ko Dukerria Frantzian, za-  
baltasun aundia artzen joan zan eta bere lurraldea,  
gaur Gaskuñia-lez ezagutzen dan lurraldea osotzen  
eban.

Akitania-rentzat keiñadura gogorra izan zan mau-  
ritarrena, erdi-ugarte onen lurralde guztiagaz jabetu  
ziralako.



(5) Banu Kasi = baleiteke euskaldunak izatea. (6) Dentro del estado franco, el estado vasco. (7) Austrasia-ko lurraldea = Klodobeo-k eraiki eban ekialdeko erregetza, eta Frantzia-ren eki alde, Alemania-ko mendebal eta Olandako lurraldeakaz osotzen zan. (8) Neustria-ren lurraldea = Merobijioaren denboran sotu zan erregearen lurraldea, eta ipar-mendebaleko Loira ibai, Mosa ibai, ta Bretañako lurraldeakaz osotzen zana. (9) Antolatzaile edo Artekari = arbitro. (10) Eskerron = gratitud, reconocimiento. (11) Onspena = aprecio, buena acogida, aplauso. (12) Regnun = reino.



## KARLO MAGNO, MAURITARRAK, KATOLIKO ELEIZA ETA EUSKALDUNAK.

720an Mauritarrek Auñamendietatik igarota, Toulouse-ari eraso eutsoen.

Eudes Aundiak, bere ardurazko lurraldea babestearen, Abinessa, erdi-ugarte onen iparraldeko mauritarren Emirra zanaren alabeagaz ezkondu zan. Abd-el-Raman-ek baiña, Abinessa baztartuta eta Auñamendietatik aldatuta, Autx eta Eauze menperatzera joan zan.

Mauritarrak, Autx ta Eauz-en ikaragarritzko zarraskiak egin eta gero Tours-era joan ziran, erregetzaren zilborra zalako.

732an Karlos Martel-ek, Eudes-eri laguntzen joan zan, eta Abd-al Raman Poitiers-en geratuta, Auña-

mendiak betiko aldatuazo eutsoen ostera.

Eudon Aundiak, iñolako nagusitasunik ez eban on artzen frankotarren aldetik, eta 735ean Karlos Martel Euskalerrian sartu ta Eudon il eban. Eudon-en urrengoa, bere seme I Unaldo izan zan, eta onek, zintzotasunezko ziñ-itza<sup>(1)</sup> emon bear izan eutsen frankotarra.

741ean Karlos Martel il zanean, euskaldunak alperrik asi ziran frankotarrak euki eben agintaritzaren aurka, 768an euskal Dukaterrian Unaldo-ren urrengo Waifre<sup>(2)</sup> zanak aurre egin eutsoelako, III In Pipino Martel-en semeak il eban.

Martel-en seme III In Pipino laburra, Karlo Magno-ren aita eta orain Frankotarren erregeak, II In Otsoari, Akitaniako euskal jabetasuna ta askatasunaren truke, berak euskaldunen artean aukeratzen eban esku aundiko zaldunak beragaz baituran<sup>(3)</sup> lez

(1) Zintzotasunezko ziñ-itza = juramento de fidelidad. (2) Waifre = Wafarius. (3) Baituran = rehen.



eroatea beartu eutson, eta bera baituta eroatea izan zan, II In Otso edo Lupo-k I Eudon-en askeneko semeak Frankotarrari ordaindu bear izan eutsena, Akitaniaren askatasunagaitik.

Jatorriz ziran erregetzazko leiñu bi onen artean, politika arloan nor geiago izateko leian, Akitania-koa: I Eudon, I Unaldo, Waifre eta II In Unaldo. Eta karolinjiotarrena: Karlos Martel, Pipino laburra, eta Karlo Magno izan ziran.

760-768 urte artean III In Pipino laburrak erabagiko eban nor-geiagotasun ori, 9 urte luzetan araubideko gudaldia eroan ebenagaz, garaille urten ebalako.

Euskaldunak eta Frankoak, kidetasunean jokutzen eban geienetan, baiña oneik menpeko asmakuntzazkoak ziran lez, beti asarratzen ziran, erabagiak euskaldunen aurka joaten ziranean.

Frankotarrak, mauritarrak dirala ta, artu-emon aundia euki eben Baskoniako Dukerriagaz, Karlo Magnok, ardura aundia euki ebalako mauritarrak bere erreñutik kanpo egon zitezen.

Bide batez Baskonian bizi zan, sarri izaten ziran euskaldunen matxinadak geratzeko.

Eta bitartez, erdi-ugarte onen iparraldeko Emir-ekin lan edo gudarako kidetu egiten zan, auek Kordobako Kalifaren aurka matxinatzen ziranean.

778an Karlo Magnoren gudalozte aundia, Roland bere zaldun bioztoi aipagarrien agindutara, Salduba mauritarrengandik askatzera joan zan, eta ezifian Iruñatik etxerantza aldatu zanean, Iruña erraustu eban.

Eta 778an Dagonillaren 15ean, Karlo Magnoren gudalozteak Auñamendietatik aldatzen doiezala, euskaldunak Orreagan itxaroten euki ebazan, eta ikaragarritzko zarraskintza egin eutsen, Roland bera be bertan ilda.

Gero, 1.090ean Roland-en abestiagaz betikotu egingo zana. Frantziko elerti lanen artean aundi-entarikoa da.

Karlo Magno, Euskaldunak askotan matxinatzen ziralako arduratuta, Asturias-eko II In Alfonso nasgabea<sup>(1)</sup> esaten eutsoen erregeagaz alkartu zan, baiña onek ego aldeko mauritarrakaz bere premitasunak euki ebazan lez, ez eutson laguntzarik emon.

Katolikotasunezko eleizak berezko errigizartearen eskubideak kontuan artu gabe, alegin asko egin ebazan Frantziako erregetzan batzangotu zitezen lurralde ta erritar orreik, eta neurri orreitan ugaritu ziren euskaldunen matxinadak Akitaniako lurraldetan.

Aita Santu guztiak katoliko joko orretan sartuta,



(1) Nasgabea = el casto.



beti ibili ziran euren arteko errege indartsuena aukeratzen, kaizar sakratuaren inperatore edo agintari izendatzeko.

Danak baiña azken gaiztoa euki dabe, lenengo-etatik mendeko bide okerretan sartzen ziralako, berezko erri ta erritarrak kontuan ez eukitearren.

Karlo Magno 800 urteko Gabonetan, Erromako Pedro Santuaren eleizan III In Leon Aita Santuak, erromatar kaizar sakratuaren Augusto-kaizerra izendatu ebenetik itzuli zanean, Akitaniako euskaldunak matxinatuta egon ziran.

814an Karlo Magno il zanean, I Pipino Akitaniako erregeak<sup>(2)</sup> bialduta, agertzen da III In Pipinok 30 urte ariñago baitua<sup>(3)</sup> izan zana, Santxo Otsoa, II In Otsoa-ren semea.

Euskaldunak nobenpopulania zarrean<sup>(4)</sup>, Santxo Otsoa-k zuzenduta egon ziran. Gero, bere seme nagusia Aznar Santso, eta au I Pipinok il ebenean, 836an bere anai Santxo Mitarrak artu eban jaurkintzaren ardura.

Santxo Mitarra, Nafarroa eta Aragoi-ko goi aldean ibili zan bere aitagaz, guda ta politikako zeregiñetan trebetasun aundiak lortuta.

838an I Pipinok, Santxo Mitarra-ri borrokara beartu eutson, eta onek Garona ibaiaren eskuma aldera indarrez eroanda Pipino-ren gudalozteak, ezereztu ebazan.

Karlo Magno-ren nagusikeritik 68 urte geroago, Euskaldunak ostera jabetu ziran euren lurralde osoakaz.

Franko-aren errege I Luis errukitsuak<sup>(5)</sup>, Santxo Mitarra-ren jaurkintza baieztu eban, 840an bera il zanean baiña, Frantziako kaizertza bere iru semeen artean banandu eban, eta mendebaleko lurraldea Akitaniagaz batera, Karlos buru-soil-en<sup>(6)</sup> ardura-pean geratu zan.


Euskalerrria, naita gero murriztuta geratu, beti danik izanda Euskaldunen Aberria.

**Atutxa-tar Paul**  
*Zornotzan, 2.011n Zezeilla-ren 15ean*

(2) 803-838, Luis errukitsuaren ( el piadoso) bigarren semea, Akitaniako errege izendatu eben, bere anai Lotarioren menpean, au, kaizar izenaren ondorengoa zalako. (3) Baitua = reben. (4) Novempopulania = Galia erromatarrek 17 lurraldeetan banandutako bat, Aquitania lurraldeko geien osotzen ebana. (5) I Luis errukitsua = el piadoso, o, Ludovico Pio 778-840. (6) Karlos buru-soil = karlos el calvo, 823-877.

# Euskaldun barrirentzat

## Zazpi utsak



## Sudoku

	3			1			2
1	5		7				
			2	9		3	
3		1					6
	9	4				5	8
	6					1	7
		7		5	4		
				2		9	8
2			3				5

2	1	9	3	8	7	4	5	6
5	4	3	6	1	2	7	9	8
6	8	7	9	5	4	2	3	1
8	6	5	4	3	9	1	2	7
7	9	4	1	2	6	5	8	3
3	2	1	8	7	5	9	6	4
4	7	6	2	9	8	3	1	5
1	5	2	7	6	3	8	4	9
9	3	8	5	4	1	6	7	2

Ikasten

### ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar .....

..... kalean (auzoan..... zenbakian

.....errian, .....errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko .....diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan             zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

BAGA, BIGA, IGA  
LAGA BOGA SEGA,  
ZAI ZOI BELE,  
ARMA TIRO PUN! (BARRIZ)

TXIRRISTI MIRRISTI  
GERRENA PLAT,  
OLIO ZOPA  
KIKILI SALDA URRUP  
EDAN ODO KLIK!  
IKIMILIKILIKLIK

